

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

5549

EBAZPENA, 2025eko abenduaren 22koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez onartzen baitira Lan-arriskuen Prebentzioaren arloko jardueretarako dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak, eta 2026. urteko deialdia egiten baita.

Lan Arriskuak Prebenitzeko Estatuko Fundazioaren (aurrerantzean, FEPRL) xedea da laneko segurtasun- eta osasun-baldintzen hobekuntza sustatzea, bereziki enpresa txikietan, lan-arriskuak prebenitzeko arautegia betetzeari buruzko informazio, laguntza tekniko, prestakuntza eta sustapeneko ekintzen bidez.

Uztailaren 16ko TES/835/2025 Aginduak 577.264,97 euro esleitzen dizkio Euskal Autonomia Erkidegoari (TES/835/2025 Agindua, uztailaren 16koa, Estatuaren Aurrekontu Orokorren kontura finantzatutako lurralde-eremuko laneko arriskuen prebentzioaren arloko ekintzak finantzatzeko kredituak lurraldeka banatzen dituen 2025eko ekitaldirako).

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera laneko arriskuen prebentzioaren arloan jarduerak egiteko dirulaguntzak norgehiagoka-araubidearen pean emateko oinarri arautzaileak onartzen dituen uztailaren 21eko TES/864/2023 Aginduaren 1. artikulua bigarren paragrafoak dioenez, «Autonomia-erkidegoek beren araudi propioa ezarri ahal izango dute dagozkien dirulaguntzak kudeatzeko eta emateko, beren kudeaketa-eskakizunen, administrazio-antolamendutik eratorritako espezialitateen eta kudeaketa-eremuan aplikatu beharreko arauen arabera».

Gure eremu autonomikoan, ebazpen honek onartzen ditu berezko araudi autonomikoa edo dirulaguntza horiek emateko oinarri arautzaileak. Ondorioz, onartzen diren oinarriak bat datoz 1. artikuluan bertan eta 2., 3., 4., 5., 6., 7.1, 17.1, 18.1 eta 20tik 25era bitarteko artikuluetan ezarritako oinarriekin, estatuko agindu horren 23. artikulua 3, 4, eta 5 puntuetan ezarritakoekin izan ezik; gainerako artikuluetako oinarrien edukia ordezko arau gisa aplikatuko dira, 1.2 artikulua horren hirugarren paragrafoaren arabera.

Kudeaketa arintzearen, 2026rako EAeko Aurrekontu Orokorren kargurako gastu-espedientearen alde aurreko izapidetzearen arabera izapidetuko da deialdi hau, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduan ezarritakoaren arabera (agindu horren bidez, EAeko Aurrekontu Orokorren kargurako gastu-espedientearen alde aurreko izapidetzea arautzen da). Horren ondorioz, deialdiko dirulaguntzak gauzatzeko, kreditu egokia eta nahikoa egon beharko da 2026ko EAeko Aurrekontu Orokorretan.

Bestalde, adierazi behar da Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen (aurrerantzean, Osalan) 2025-2028 aldirako Dirulaguntza Plan Estrategikoak, zeina bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburuaren otsailaren 4ko Aginduaren bidez onartu baitzen, dirulaguntza horiek aurreikusten dituela, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 7.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Ebazpen honetan iragarritako dirulaguntzek plan estrategiko horretan ezarritako helburuak lortzen lagunduko dute, laneko arriskuen prebentzioa dela-eta genero-ikuspegiarekin kontzientziazten zehazki, eremu horretako prestakuntza eta berrikuntza sustatuz, bai eta langileen osasuna

babesten ere, gizarte-aldaketei (zahartzea, lana antolatzeko modu berriak, globalizazioa) aurrea hartzeko prebentzio-neurriak, aldaketa teknologikoak (digitalizazioa, automatizazioa) eta inguru-menekoak (klima-aldaketa) zehaztuz.

Dirulaguntza horiek 9. helburu estrategikoaren barruan daude, 11. dirulaguntza-lerroan. Osalaren 2025-2028 aldirako Dirulaguntza Plan Estrategikoko Laneko Arriskuen Prebentzioaren eremuko (Laneko Arriskuen Prebentziorako Estatuko Fundazioa) jarduerak egitea.

Printzipio horiekin bat, eta gastu-kredituaren habilitazioan oinarrituta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Eranskinean bildu diren dirulaguntzak, Laneko Arriskuen Prebentzioaren eremuan jarduerak egitekoak, emateko oinarri arautzaileak onartzea, eta 2026. urterako deialdia egitea.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA

Ebazpen honetan jasotako laguntzak emateko, kreditu egokia eta nahikoa egon beharko da Euskal Autonomia Erkidegoko 2026. urteko Aurrekontu Orokorretan, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren 5.3 artikulua araberan (Agindua, 2007ko apirilaren 26koa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako gastu-espeditenteak aurretiaz izapidetzea arautzeari buruzkoa).

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta beronen aurka, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osalan Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean. Bi kasu horietan, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da epea zenbatzen. Horrela ezartzen du urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 123. eta 124. artikuluetan eta uztailaren 13ko 29/1998 Legeak (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautu duenak) 8.3 eta 46. artikuluetan.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango du eragina.

Barakaldo, 2025eko abenduaren 22a.

OSALANeko zuzendari nagusia,
MARÍA LOURDES ISCAR REINA.

I. ERANSKINA

2026AN LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN ARLOAN JARDUERAK EGITEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK.

Lehenengoa.– Xedea eta eremua.

Oinarri hauen xedea da Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak (aurrerantzean, Osalan) norgehiagoka-araubidean emango dituen dirulaguntzak arautzea, lan-arriskuen prebentzioaren arloan sektorearteko edo sektoreko ekintzak egiteko, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera. Dirulaguntza horien azken hartzaileak Euskal Autonomia Erkidegoan (aurrerantzean, EAE) kokatutako lantokietan zerbitzuak ematen dituzten enpresak eta langileak izango dira.

Bigarrena.– Beste dirulaguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

1.– Ematen diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira administrazio honek nahiz beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatuek xede eta helburu bererako ematen dituzten beste dirulaguntza eta laguntzekin.

Dirulaguntza eta laguntza horiek jaso dituela jakinarazi beharko dio erakunde onuradunak Osalani.

2.– Emandako dirulaguntzaren zenbatekoak, diruz lagundutako jarduera bererako lortutako beste dirulaguntza eta laguntza batzuekin edo jarduera hori gauzatzean lortutako diru-sarrerekin batera, ezin izango du inola ere gainditu diruz lagundutako jardueraren kostu osoaren % 100. Hori gertatuz gero, haborokina kenduko zaio deialdi honetan emandako laguntzari.

3.– Beste dirulaguntza nahiz laguntzarik lortuz gero, instrukzio-organoari jakinarazi beharko zaio lortzen den unean bertan, dela diruz lagundutako jarduera gauzatu aurretik, dela gauzatu bitartean; hura esleitzen duen ebazpena aurkeztu ere egin beharko da.

Hirugarrena.– Baliabide ekonomikoak.

1.– Deialdiaren ebazpena emango bada, aldeztu aurretik kreditu egokia eta nahikoa egon beharko du EAEn 2026ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorretan.

2.– Ebazpen honen xedera bideratutako baliabide ekonomikoak Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioak 2025. urtean horretarako transferitutako aurrekontu-kreditutik datoz, eta bostehun eta hirurogeita hamazazpi mila berrehun eta hirurogeita lau euro eta laurogeita hamazazpi zentimo dira (577.264,97).

Laugarrena.– Ekintzen hartzaileak.

Besteren nahiz norberaren konturako langileak eta egoitza fiskala EAEn duten enpresak, bereziki txikiak, izango dira ekintzen hartzaileak.

Oinarri hauei dagokienez, berrogeita hamar langile baino gutxiagoko plantilla duen enpresak hartuko dira enpresa txikitzat.

Bosgarrena.– Entitate onuradunak.

Entitate hauek izan daitezke dirulaguntzen onuradunak:

– Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 12. artikuluan aipatzen diren erakundeak.

– Beren sektore- eta lurralde-eremuetako enpresa- eta sindikatu-erakunde esanguratsuak. Sindikatuen eta enpresa-erakundeen estatutuak gordailutzeari buruzko maiatzaren 29ko 416/2015 Errege Dekretuaren arabera eratuta egon beharko dute sindikatuek eta erakunde horiek.

– Aurreko bi azpiataletan aipatutako erakundeek beren helburuak lortzeko eratutako fundazio, elkarte zein bestelako erakundeak.

Seigarrena.– Erakunde onuradunek bete beharreko baldintzak.

– Ezingo dira entitate onuradunak izan Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Lege Orokorraren 13. artikuluan xedatutako debeku-egoeraren batean dauden erakundeak.

– Erakunde onuradunek Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 20/2023 Lege Orokorraren 14. artikuluan jasotako betekizunak bete beharko dituzte.

– Aurreko artikuluen c) letran aipatutako fundazio, talde nahiz bestelako erakundeak, nortasun juridikorik ez badute ere, dirulaguntza bat eskatzen badute sektorearteko ekintzak egiteko, eta diruz lagundu daitezkeen proiektuak eta jarduerak egin baditzakete, onuradunak izan ahalko dira baldin eta dirulaguntza emateko eskabidean alderdi hauek berariaz jasotzen badituzte, erakundeok osatzen dituzten kide guztiak onuraduntzat hartuko baitira:

– Dena delako fundazio, talde edo erakundeko kide bakoitzak proiektua gauzatzeko hartu dituen konpromisoak.

– Eskatutako dirulaguntzaren zenbatekoa, dena delako fundazio, talde edo erakundeko kide bakoitzak aplikatu beharrekoa.

– Dena delako fundazio, talde edo erakundearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatzea, erakunde onuradun gisa dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiekin.

Onuradun egiten diren fundazio, talde nahiz bestelako erakundeak ezin izango dira desegin harik eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren eskubideen preskripzio-epea, legez aurreikusitakoa, igaro arte.

Zazpigarrena.– Eskabideak aurkezteko epea.

Dirulaguntza-eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Zortzigarrena.– Eskabideak atontzea eta aurkeztea.

1.– Erakunde interesdunek eskabide bat aurkeztuko dute dirulaguntza eskatzen den proiektu bakoitzeko.

2.– Eskaeraren datuak larriki ezkututzeak, aldatzeak edo eskatutako informazioa edo harekin batera doan aplikazio telematikoan sartutako dokumentuak manipulatzeko eskaera ezestea ekarriko du.

3.– 5. artikuluko erakundeek bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu beharko dituzte dirulaguntza-eskabideak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren Administrazio Institutuzionalaren egoitza elektronikoen (<https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/osalan-2025-estatal-fundacion-prl/web01-tramite/eu/>) web-helbidean edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako organoen erregistro elektronikoetan.

Eskabidea aurkeztu osteko izapideak egoitza elektronikoen «Nire karpeta» atalean egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta>.

Helbidehonetan eskuratuta daitezkeen sandako egoitza elektronikoen onartzen diren identifikazio-etasinadura elektronikorako bitartekoak: <https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>

Eskabidea aurkeztu ondorengo izapideak (sarbidea, izapidea eta jarraipena) aipatu egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira.

4.– Dirulaguntza eskatzen duten erakundeek ordezkari baten bitartez jardun ahal izango dute, bai eskabidea elektronikoki aurkezteko, bai administrazio-prozeduraren gainerako izapideak bide beretik egiteko.

5.– Erakunde eskatzaile eta, hala badagokio, onuradunak gure autonomia-erkidegoko hizkuntza ofiziala aukeratu ahal izango du, eta bertan aurkeztuko du bai dirulaguntzaren eskabidea, bai administrazio-prozeduran aurkeztu duten edo aurkeztu behar duten beste edozein dokumentu, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluen eta Euskal Sektore Publikoaren 3/2022 Legearen 76. artikulutik 79. artikulura bitartekoaren arabera.

6.– Inprimaki elektronikoa normalizatuaren bidez egiten diren eskaerak aukera ematen du dirulaguntza eskatzen duten erakundeek baimena eman dezaten hamalagarren oinarriko 14.1 artikuluan aipatzen den organo kudeatzaileak nortasun-agiri nazionalari (NAN) edo identifikazio fiskaleko zenbakiari (IFZ) eta erregistro ofizialei buruzko datuak lortu edo egiaztatu ahal izan dituzan, dirulaguntza horiek kudeatzeko ondorioetarako soilik, hargatik eragotzi gabe Administrazio Publikoak egiaztatze, kontrolatzeko eta ikuskatzeko dituen ahalmenak. Hala ere, erakunde eskatzaileak berariaz uka dezake baimen hori, eta, kasu horretan, dagozkion ziurtagiriak berak aurkeztu beharko ditu.

7.– Entitate eskatzaileak eskabidean berariaz baimendu ahal izango du Osalan, 20/2023 Legearen 13.1 artikulutik 4. artikulura bitartean aurreikusi bezala, erakunde onuradun izateko debekuen eraginpean ez dagoela justifikatzen duen dokumentazioa lortzeko. Berariazko baimenik izan ezean, erakunde eskatzaileak berak aurkeztu beharko du eskabidean «Erantzukizunpeko adierazpenaren eredu», erakunde onuradun izateko debekurik ez duela adierazten duena (IV. eranskina, beteta).

Onuradun edo entitate laguntzaile izatea galarazten duen debekurik ez dutela frogatzeko –artikulu honen 1. apartatutik 4.era bitarte aipatu dira debekuak–, bide hauek dituzte eskatzaileek: lekukotza judiziala, ziurtagiri telematikoak edo datu-transmisioak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak teknika elektronikoa, informatikoa eta telematikoak erabiltzeko dago-kion araudian ezarritakoaren arabera, edo, bestela, ziurtagiri administratiboa, kasuaren arabera. Agiri hori agintari eskudunak egiterik ez badu, haren ordezkari Administrazio agintari edo notario publiko baten aurrean egindako erantzukizunpeko adierazpen bat aurkez daiteke.

8.– Dokumentu hauek erantsiko zaizkio eskabideari:

Erakundearen sortze-ekrituren kopia kautoa, estatutuak eta erregistro ofizialaren ziurtagiria, erakundea legez eratuta edo dagozkion erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatze.

Erakunde eskatzailearen legezko ordezkari egiaztatze notario batek sinadura duen dokumentu publiko edo pribatuaren kopia kautoa. Erakunde-ziurtagiri elektronikoa batekin identifikatzen bada, ez da beharrezkoa izango egiaztatzea ordezkari-ahal nahikoa duela ziurtagiriaren erakunde titularraren izenean izapidetzeko.

Diruz lagundu daitekeen jardueraren deskribapena, I. eranskineko ereduaren arabera («Proiekturako memoria teknikoaren eredia»).

Diruz lagundu daitekeen jardueraren aurrekontu ekonomikoa, II. eranskineko ereduaren arabera («Proiektuaren memoria ekonomikoen eredia»).

Bosgarren oinarriko c) letrako erakundeek eskabide bat aurkezten badute:

- 1.– Ekintza gauzatzean kide bakoitzak bere gain zer konpromiso hartzen dituen jasotzen duen dokumentua.
- 2.– Kide bakoitzaren erantzukizunpeko adierazpenak, bederatzigarren oinarriaren arabera.

Proiektuaren zati baten garapena edo exekuzioa hirugarrenekin kontratatu nahi bada, kontratazio horretara jo beharra justifikatzen duen memoria, kontratatu beharreko zenbatekoa jasotzen duena.

Diruz lagundu daitekeen proiektua osatzen duten ekintzak gauzatzean erakunde eskatzaileak kontuan hartuko dituen adierazleen zerrenda, ekintza horiek egitean lortutako emaitzak objektiboki kuantifikatu ahal izateko, bai eduki teknikoari dagokionez, bai eraginkortasunari, efizientziari eta ekonomiari dagokienez.

Ez dira aurkeztu beharko dagoeneko Administrazioaren esku dauden agiriak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikulua).

Bederatzigarrena.– Onuradun edo entitate laguntzaile izateko debekuak.

1.– Ezingo dira dirulaguntzen onuradun izan 20/2023 Legearen 13. artikulua 1, 2, 3 eta 4 artikuluetan aurreikusitako egoera batean diren entitateak: Egoera horietakoren batean ez dagoela justifikatzeko, erakundeak, eskaerarekin batera, lekukotza judiziala, ziurtagiri telematikoak, datu-transmisioak edo administrazio-ziurtagiria aurkeztu ahal izango ditu.

2.– Baldin eta agintaritza eskudunak ezin badu aurreko apartatuko justifikazio-dokumentazioa jaulki, erakunde eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpen batez ordezkatu ahal izango da, IV. eranskinean jasotako ereduaren arabera («Erantzukizunpeko adierazpenaren eredia, erakunde onuradun izateko debekuren baten eraginpean ez dagoela adierazteko»).

Erakunde eskatzaileak erantzukizunpeko adierazpenean jasotzen duen funtsezko datu edo informazioaren bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada, edo halakorik ez badu aurkezten, edo deklaritzen dena betetzen duela egiaztatzeko eskatzen zaion dokumentazioa administrazio honi ez badio aurkezten, ezin izango da onuraduna izan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua arabera.

Hamargarrena.– Eskabideak zuzentzea eta jakinarazpenak egitea.

1.– Dirulaguntzaren eskabideak edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, edo edukia nahikoa ez bada, erakunde eskatzaileari eskatuko zaio 10 eguneko epean akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen dokumentuak aurkezteko, eta adieraziko zaio hala egin ezean eskaeran atzera egin duela ulertuko dela Osalari zuzendari nagusiak ebazpena eman ondoren. Ebazpen horretan adieraziko da zer egitate gertatu diren eta zer arau aplikatu behar diren, eta erakunde eskatzaileari jakinaraziko zaio.

2.– Aurreko apartatuko jakinarazpena zein 14.1 oinarrian esaten den organo kudeatzaileak egiten dien jakinarazpena elektronikoki egingo zaizkie erakunde eskatzaileei, Euskal Autonomia

Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren Administrazio Instituzionalaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalean (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>).

Hamaikagarrena.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak eta gauzatzeko epeak.

1.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik 2026ko azaroaren 30era bitartean egingo dira, eta bereziki EAEn kokatutako enpresa txikietan laneko segurtasun- eta osasun-baldintzak hobetzea izango dute, zalantzarik gabe, helburua.

2.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak genero-ikuspegia kontuan hartu beharko dute. Hala, garatzen den jardueraren eremu zehatzean emakumeen eta gizonen artean egon daitezkeen desberdintasunak sistematikoki kontuan hartuko dituzte, eta neurriak diseinatuko dituzte berdintasuna sustatzeko eta desberdintasunak ezabatzeko, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren 3., 17, 19. eta 23. artikuluen arabera.

3.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak ekintza mota hauek hartuko dituzte barne:

a) Informazio-ekintzak: laneko arriskuen prebentzio-ekintzaren printzipioak edo printzipio horiek aplikatzeko arau zehatzak langileen eta enpresaburuen artean zabaltzea helburu dutenak.

b) Laguntza teknikoko ekintzak: prebentzio-jardueren aplikazio praktikotik eta materialetik eratorritako arazoak aztertzeke eta konpontzeko ekintzak.

c) Prestakuntza-ekintzak: produkzio-jardueraren sektore eta azpisektoreetan eman daitezkeen programen metodoak eta edukiak diseinatzen dituztenak, batez ere enpresa txikiek osatutako egitura dutenak.

d) Lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzen dela sustatzeko ekintzak: langileek eta enpresaburuek lan-arriskuen prebentzioari buruzko legezko, arauzko eta hitzarmenezko xedapenak ezagutu eta aplikatzea sustatzen dutenak, bereziki produkzio-jardueraren sektore- eta lurralde-eremuetan garatutako mekanismoen eta tresnen bidez.

Ekintza-mota bakoitzean diruz lagun daitezkeen jardueren kasuak III. eranskinean jasotzen dira («Hamaikagarren 3. oinarriko diruz lagun daitezkeen jardueren zerrenda orientagarria»).

Hamabigarrena. Onuradunek diruz lagundutako jarduerak kontratatzea.

1.– Erakunde onuradunak berak egin beharko du diruz lagundutako jarduera. Hala ere, hirugarrenekin kontratatu ahal izango ditu berez egin ezin dituen jarduera lagunduak; ezintasuna diruz lagundutako proiektuaren memoria teknikoan egiaztatu beharko da.

Hasierako memorian edo ondorego baimenetan onartutako gastuak finantzatu dira. Kontratazio-kontzeptu horretatik kanpo geratzen dira onuradunak diruz lagundutako jarduera bere kabuz egiteko egin behar dituen gastuak, 20/2023 Legearen 31. artikuluari jarraikiz.

2.– Ezingo da kontrataziorik egin 20/2023 Legearen 31.7 artikuluan xedatutako egoeraren batean dauden pertsona edo erakundeekin.

3.– Kontratututako zenbateko osoa, hau da, hirugarrenekin egindako kontratu guztien prezioen batura, ezin izango da diruz lagundutako proiektuaren kostu finantzarri osoaren % 50 baino handiagoa izan.

4.– Baldin eta hirugarrenekin hitzartutako jarduerak dirulaguntzaren zenbatekoaren % 20 gaindizen badu eta zenbateko hori 60.000 euro baino handiagoa bada, kontratazioa idatziz egingo da. Hori gora-behera, dirulaguntza ematen duen organoak baimena eman beharko du sinatu aurretik.

5.– Pertsona fisiko edo juridikoen taldeak direnean –nortasunik gabeko pribatuak edo publikoak–, eskaeran eta dirulaguntza emateko ebazpenean berariaz jaso beharko dira taldeko kide bakoitzak proiektua egikaritzeko hartzen dituen konpromisoak, bai eta bakoitzak aplikatuko duen dirulaguntzaren zenbatekoa ere, horiek ere onuraduntzat hartuko baitira. Nolanahi ere, elkarketek ordezkari edo ahaldun bat izendatu beharko dute, eta behar besteko ahalmena eman betearaz ditzan elkarteari onuradun gisa dagozkion betebeharrak. Taldea ezingo da desegin harik eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorren eskubideen legezko preskripzio-epea igaro arte, 20/2023 Legearen 11.4 artikulua araber.

Hamahirugarrena.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak, diruz lagundu ezin direnak eta dirulaguntzaren zenbatekoa.

1.– Sektorearteko ekintzek gehienez 100.000 euroko dirulaguntza jaso ahal izango dute, eta sektoreko ekintzek 50.000 eurokoa proiektu bakoitzeko.

2.– Gastu hauek lagundu daitezke diruz:

Jarduerak garatzeko beharrezkoak diren gastu guztiak, baldin eta jarraian ezarritako mugak betetzen badira eta eskabideari erantsitako dokumentazioan ezarritako eta behar bezala zehaztutako gauzatze-aldian egiten badira, betiere 20/2023 Legearen 30. eta 31. artikuluetan ezarritako arauak betez.

Dirulaguntzaren bidez, jarduera lagungarriaren kostua osorik finantzatu ahalko da. Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira proiektuari dagozkion jarduerak egiteagatik sortutakoak. Hauek dira:

a) Langile-gastuak:

Langileen gastuak justifikatzeko, proiektuan biltzen diren pertsonen kontratuak eta nominak aurkeztu beharko dira. Gainera, langileen gastuek bete egin beharko dituzte uztailaren 21eko TES/864/2023 Aginduaren 18.6.a) artikuluan aipatutako mugak. Artikulu horrek tarifa-sistema bat xedatzen du, langile-gastuak adierazitakoak baino altuagoak direnean aplikatzeko.

Erakunde onuradunaren langile-gastuak. Erakunde horrek egiaztatu beharko du zenbat ordu eman dituen langile bakoitzak proiektuko jardueretan, ordu horien ehunekoa proiektu osoaren ordu kopuruarekiko eta horien kostua.

Teknikari laguntzaileak proiektura biltzeak ekarritako kostua. Teknikari horiek obra edo zerbitzu jakinerako edo prestakuntza-beken bidez kontratatuko dira, bi kasuetan jarduerarako soilik, eta horretan baino ez dute jardungo lanean.

b) Gauzatze-gastuak:

Aparatuak, ekipoak eta dibulgazio-materiala: Ekipamendu eta tresnen kostuak jarduera zehatzetarako erabiltzen diren neurrian eta aldi finantzatuak dira, eta, beraz, urteko amortizazioak baino ezingo dira finantzatu. Aparatu eta tresna hauek aurkeztuko dira justifikatzeko: hasieran onartuak, izendapen berberekin, edota gerora onartutako aldaketetan jasotakoak. Ez da aparatuak eta tresnak aldatzeko eskatu beharko, baldin eta berriek pareko funtzionalitatea badute. Nolanahi ere, aldaketa

horiek argi azaldu beharko dira justifikatzeko memoria ekonomikoan. Partida horren barnean finantzatzeko gastutzat hartuko da aparatuak eta tresnak «renting» eta «leasing» formulen bidez eskuratzea. Kasu horietan, hauek baino ez dira hartuko gastu finantzagarriztat: tresna horiek jardueretarako erabiltzen diren hilabetei dagozkien ordainketa-kuotak. Dibulgazio- edo prestakuntza-ekintzetarako materialetik eratorritako gastuak finantzatu ahal izango dira.

Hirugarrenak kontratatzeako gastuak: Hirugarrenak kontratatzeako gastuak behar bezala xehakatu dira, eta proiektua gauzatzeko egindakoak soilik hartuko dira aintzat. Hirugarrenen kontratazioa deialdi honen 12. artikuluan ezarritako ezaugarrien mende egongo da. Hasierako memorian edo ondorengo baimenetan onetsitako hirugarrenen kontratazio-gastuak finantzatu dira.

Proiektuan zuzenean erabiltzeko bibliografia-funtsak eta material suntsikorra erosteko gastuak.

Bidaiak, joan-etorriak eta mantenu-gastuak: jardueraren lantaldeko kideenak edo proiekturako kontratatutako teknikari laguntzaileenak baino ez, laneko segurtasunaren eta osasunaren gaineko proiektuetarako finantzatu daitekeen kostuaren % 5eko mugarekin. Diruz lagundutako jarduera egiteko ezinbesteko gastuak baino ez dira finantzatu: eskabidearen memorian aipatzen direnak edo ondoren onartzen direnak, jarduera gauzatzeko eta emaitzak aurkezteko ezinbestekoak direnean. Inoiz ez dira finantzatu egonaldi akademikoen edo prestakuntza jasotzeko egonaldien ondoriozko gastuak.

Erakunde onuradunak ezin izango du inola ere diruz lagundu jasandako BEZ kengarria.

c) Zeharkako gastuak: Aurreko a) eta b) ataletan jasotako zuzeneko gastu gisa justifikatutako zenbatekoaren % 15 onartuko da gehienez. Behar bezala justifikatzeko, aurkezpen-eguneari azkeneko ikuskatutako urteko kontuak aurkeztuko dira, erabilitako egozpen-irizpideen azalpenarekin batera. Aurkeztu beharreko nominak diruz lagundu beharreko aldiak gauzatuak eta aurreikusitakoak izango dira.

3.– Eskura dauden baliabideak ezin izango dira erabili azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 18. eta 19. artikuluetan aurreikusitako enpresaren prebentzio-betebeharrak betetzera bideratutako ekintzak finantzatzeko, ezta lan-arriskuen prebentziolari buruzko araudian enpresaburuarentzat nahitaezko zat jotako beste edozein ekintza finantzatzeko ere.

Hamalagarrena.– Organo kudeatzailea eta balorazio-batzordea.

1.– Osalaneko Plangintza Zuzendariordetzak kudeatuko du dirulaguntzak emateko deitutako prozedura.

2.– Aurkeztutako eskabideak baloratzeko, balorazio-batzorde bat eratuko da, sexu-parekidea eta Osalaneko pertsona hauek osatua:

– Batzordeburu, Plangintzako zuzendariordea.

– Bost bokal hauek:

1.– Bizkaiko Lurralde Zentroko Lan Osasuneko Unitateko mediku bat.

2.– Zuzendariordetza Teknikoko Lan Arriskuen Prebentzioko teknikari bat.

3.– Gipuzkoako Lurralde Zentroko Lan Arriskuen Prebentzioko teknikari bat.

4.– Arabako Lurralde Zentroko Lan Arriskuen Prebentzioko teknikari bat.

5.– Berdintasuneko teknikari bat.

– Idazkaria: Plangintza Zuzendariordeztako ikerketa-teknikari bat.

3.– Zuzendariordeztza Teknikoko Laneko Arriskuen Prebentzioko teknikaria den batzordekideak ordeztuko du batzordeburua, kargua hutsik dagoenean edo pertsona kanpoan, gaixorik edo legezko denean edo beste legezko kasuren bat denean.

Zuzendariordeztza hori hutsik badago edo titularra kanpoan edo gaixorik badago, edo batzordeburua ordeztzea eragozten dion beste legezko kasuren bat bada, hierarkia, antzinatasun eta adin handieneko kidea arituko da, hurrenkera horretan, balorazio-batzordeko buru.

4.– Batzordeko idazkaria karguan ez badago, gaixorik badago edo legezko beste arrazoiren bat gertatzen bada, edozein kidek ordezkatu du, Zuzendariordeztza Teknikoko Laneko Arriskuen Prebentzioko teknikariak izan ezik.

5.– Balorazio-batzordeak aholkulariak eduki ahal izango ditu. Aholkulari horiek hitza izango dute, baina botorik ez. Batzordeburuak izendatuko ditu, Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloan duten kualifikazioa eta esperientzia kontuan hartuta, eta ez dute enplegatatu publikoen beharrik izango.

6.– Balorazio-batzordearen osaera izenduna jakinaraziko da euskadi.eus egoitza elektronikoan, interesdunei bermatu behar baitzaie batzordeko kideak errefusatzeko eskubidea eraginkortasunez baliatzeko aukera, betiere Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan, EHAAn edo Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan (<https://www.euskadi.eus/egoitza-elektronikoa/>) ezarritakoaren arabera.

Hamabosgarrena.– Baloratzeko eta esleitzeko irizpideak.

1.– Balorazio-batzordeak onartutako eskabideetan aurkeztutako proiektuak aztertuko ditu, eta honako balorazio-irizpide hauen arabera baloratuko ditu (gehienez 100 puntu):

a) Inpaktu- eta egokitasun-irizpideak (gehienez 50 puntu).

1.– Langileen segurtasuna eta osasuna hobetzeko aurreikuspena: prebentzioaren integrazioaren gaineko eragina, prebentzio-tresnen diseinuaren eta egikaritzaren hobekuntza: arriskuen ebaluazioa, prebentzio-plangintza, osasunaren zaintza... Esperientzia langileen prestakuntza eta ezagutza hobetzen: eragina langileen, enpresaburuen eta beste eragile batzuen prestakuntzan, ezagutzan eta aholkularitzan. Langileengan izan lezakeen inpaktua, generoaren ikuspegitik: emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua jardueretan, Laneko Arriskuen Prebentzian genero-arrakalak hautematen eta murrizten laguntzea eta sektore feminizatuetan duen eragina, sektore maskulinizatuetako emakumeengan duen eragina (0-15 puntu).

2.– Emaitzen aplikagarritasuna eta proiektuaren eragin sozioekonomikoa: proiektuaren erabilgarritasuna eta aplikazioak lan-arriskuen prebentzian (enpresetan, ekoizpen-sektoreetan edo orokorrean duten aplikazioak). Esperientzia enpresekiko eta langileekiko harreman zuzenean. Enpresa txikiei bereziki zuzendutako jarduera (0-15 puntu).

3.– Proiektua deialdiko gaietara egokitzea: III. eranskinetako aukeratutako proiektuaren gaiarekiko zehaztasuna, argitasuna eta egokitasuna, eta proiektuan genero-ikuspegia txertatzeko moduen zehaztasuna, argitasuna eta egokitasuna (0-10 puntu).

4.– Emaitzak zabaltzeko plana: jarduera aktiboki hedatzeko plana, tailer, mintegi, webinar eta abarren bidez. Langile-kolektiboentzako bitartekoak, publikitatea, iragarkiak eta eragin-lekuak zabaltzeko baliabideak izateko aukera. Proiektua argitalpen zientifikoetan, aldizkari espezializatuetan, jardunaldi eta bilera zientifikoetan, beste argitalpen batzuetan, patenteen erregistroan eta abarretan argitaratzeko aukera (0-10 puntu).

b) Irizpide teknikoak: proiektuaren kalitate-maila, hedapena eta genero-ikuspegiaren txertaketa (gehienez 50 puntu).

1.– Metodologia: deskribapenaren argitasuna baloratuko da, jardueraren gaiarekiko egokitasuna, lanaren helburuak, lan-ildoak garatzeko elementuen eta tekniken deskribapena, bai eta adierazle kuantifikagarri, justifikatu eta kontrolagarrien erreferentzia ere. Adierazle horiek kontuan hartuko dira diruz laguntzen diren jarduerak laneko segurtasunaren eta osasunaren eremuan duen eragina ebaluatzeko. Gainera, datuak sexuka banakatuta jasoko dira, pertsonen buruzkoak badira (0-10 puntu).

2.– Proiektuaren plangintza: zereginen deskribapena kronograma baten bidez (zereginen banaketa, sekuentzia eta iraupena). Eskura dauden baliabideak proposatutako helburuetara egokitzea: giza baliabideak eta baliabide teknikoak, kudeaketa-plan koherentea eta posibilista, aurreikusitako epeak, etab. Azpikontratutako jarduerak kronograman eta kudeaketa-planean nola txertatzen diren (0-10 puntu).

3.– Proiektua gauzatu duen taldearen eta pertsonen gaitasun teknikoa eta profesionala. Esperientzia eskaintzen duen laguntza profesionaleko sare edo egitura bat izatea. Taldeak antzeko proiektuetan duen esperientzia. Lantaldeak lan-eremu horretan genero-ikuspegia txertatzeko duen prestakuntza eta esperientzia (0-10 puntu).

4.– Memoria ekonomikoa zenbateraino datorren bat proiektua gauzatzeko lanekin: aurrekontu xehea, deskribatutako jardueretik egokitasuna, partaide vs jarduera denbora-diagrama, iker-tzaileen kostua orduko, proiekturako instalazioak eta azpiegiturak (0-10 puntu).

5.– Proiektuaren berrikuntza-maila: proiektuaren faktore berritzaileak, baliabide teknologikoak, abantaila aipagarriak, gaiaren ezagutza eta aurrekariak: esperientzia proiektuaren gaian, ikerketa-jardueraren lan-esparruarekin lotutako argitalpenak (0-10 puntu).

2.– Ezetsi egingo dira gutxienez puntuazio hauetakoren bat lortzen ez duten proposamen guztiak:

– Guztira 60 puntu bi atalak batuta.

– Gutxienez 30 puntu atal bakoitzean.

3.– Proiektuen arteko berdinketa gertatzen bada puntuazioan, hurrengo irizpideetan puntu gehien eskuratzen dituen proiektuaren alde egingo da, ondoren planteatutako lehentasun-hurrenkeraren arabera:

– Pertsonen osasuna hobetzeko aurreikuspena, arreta berezia jarriz lan-istripuak eta lanbide-gaixotasunak murriztean, eta lehentasuna emanez langileen osasunean eragindako kalteak murriztean.

– Aplikagarritasuna enpresa txikietan, enpresa horien prebentzio-kudeaketa hobetuko duten eta baliabide propioen inplikazio handiagoa sustatuko duten tresnen garapena indartuz.

– Arrisku handieneko edo kalteberatasun bereziko egoeran dauden langileen babes indartzea.

– Genero-ikuspegiaren txertatze-maila.

– Proiektuaren berrikuntza-maila, lana antolatzeko modu berrietatik eta aldaketa demografiko eta klimatikoetatik eratorritako aldaketen kudeaketa hobetzeko, prebentzioaren ikuspegitik, arrisku berriei eta sortzen ari direnei aurrea hartzea eta horiek kudeatzea lehenetsiz.

Emaitzen aplikagarritasuna eta proiektuaren eragin sozioekonomikoa.

Hamaseigarrena.– Eskabideen balorazioa eta behin-behingo esleitze-proposamena.

1.– Organo kudeatzaileak aztertuko ditu aurkeztu diren eskabideak, eta, balorazio-batzordearen deialdia egin aurretik, egiaztatuko du deialdi honetako betekizun espezifikokoak betetzen direla, hau da, diruz lagundu beharreko proposamenak bat datozela deialdiaren xedearekin eta eremuekin, dirulaguntzaren xedea zein den, onuraduna izateko baldintzak betetzen direla, eskabidea garaiz eta behar bezala aurkeztu dela, eskatutako dokumentazioa aurkeztu dela, bai eta aplikatu beharreko beste batzuk ere, eta, beharrezkoa bada, eskabideak zuzentzeko eskatuko du.

2.– Organo kudeatzaileak eskabideak aurreko apartatuan ezarritako baldintzetan baloratu ondoren, hamalagarren oinarrian esandako Balorazio Batzordeari dei egingo dio, aurretiazko administrazio-baldintzak betetzen dituzten eta diruz lagun daitezkeen proiektu guztiak ebalua ditzan, hamabosgarren oinarrian ezarritako irizpideen arabera.

Eskabideak baloratzeko prozesuan zehar, balorazio-batzordeak egoki iriztitako dokumentazio osagarria aurkez dezatela eskatu ahal izango die entitate eskatzaileei.

3.– Eskabideak ebaluatu ondoren, balorazio-batzordeak txosten bat egin beharko du, egindako ebaluazioaren emaitza zehazteko.

4.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak hautatzean, laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan garatzen diren jarduerak direla ikusiko da, eta III. eranskinean jasotako gaiekin bat datozela baloratuko da.

5.– Gainera, erakunde eskatzaileek proposatutako ekintzen ebaluazio-adierazleen egokitasuna baloratuko da, ekintza gauzatu ondoren ekintzen finantzaketak laneko segurtasun- eta osasun-baldintzen hobekuntzaren sustapenean eraginik izan duen zehaztu ahal izateko.

Hamazazpigarrena.– Behin-behingo ebazpen-proposamena.

1.– Organo kudeatzaileak, espedientea eta Balorazio-batzordearen txostena ikusita, behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta, interesdunei deialdian ezartzen den moduan jakinarazi beharko zaiena, eta hamar eguneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko, 20/2023 Legearen 21.3 artikulua.

2.– Behin-behingo ebazpen-proposamenak eskabidea berratatutako beharra ekar lezake, hurrengo artikulua xedatutako moduan.

Hamazortzigarrena.– Eskabideak berratatzea.

1.– Baldin eta aurkeztutako eskabidean jaso den zenbatekoa baino txikiagoa bada behin-behineko ebazpen-proposamenaren dirulaguntzaren zenbatekoa, onuradunari eskatu ahal izango zaio eskabidea berriz egin dezala, konpromisoak eta baldintzak eman daitekeen dirulaguntzari egokitzeko, 20/2023 Legearen 24. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.– Eskabideak Balorazio-batzordearen adostasuna behar badu, organo kudeatzaileak organo eskudunari igorriko dio, azken horrek eman beharreko ebazpena eman dezan.

3.– Nolanahi ere, eskabideak berriro egitean, dirulaguntzaren xedea, baldintzak eta helburua ez ezik, ezarritako balorazio-irizpideak ere bete beharko dituzte, eskabideei dagokienez.

4.– Birformulazioa eskatu eta eskatzaileak erantzunik eman ez badu emandako epean, aurkeztutako eskabidearen zenbatekoari eusten zaiola ulertuko da.

Hemeretzigarrena.– Behin betiko esleitze-ebazpena eta laguntzaren onarpena.

1.– Interesdunek aurkeztutako alegazioak eta, halakorik denean, egindako eskabide-berrantontzeak aztertu ondoren, behin betiko ebazpen-proposamena egingo da. Bertan, dirulaguntza ematea proposatzen den entitate eskatzaileen zerrenda adieraziko da, bai eta zenbatekoa ere, eta, hala badagokio, ebaluazioa eta erabilitako balorazio-irizpideak zehaztuko dira.

2.– Kudeaketa-fasean onuradun izateko proposatu direnei jakinaraziko zaie behin betiko ebazpen-proposamena, 15 eguneko epean onar dezaten. Onartzen ez duten kasuan, onuradun gisa proposatutako pertsonak eskaerari uko egiten diola ulertuko da, 20/2023 Legearen 21.4 artikulua xedatu bezala.

3.– Aurkezten diren eskabideei buruzko ebazpena emateko eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izango da, ebazpenak indarra hartzen duenetik aurrera. Epe hori igarota ez bada esanbidezko erabakirik eman eta jakinarazi, eskaerak ezetsizat hartu ahal izango dira 39/1992 Legearen 25 artikuluan ezarritakoari dagokionez eta Administrazioak esanbidezko ebazpena emateko obligazioa gora-behera.

4.– Emandako dirulaguntzen zerrenda erakunde interesdunei jakinaraziko zaie, eta, gainera, egoitza elektronikoa argitaratuko da, haien zenbatekoa, finantzatutako jarduketa eta onuraduna adierazita.

Behin-behingo eta behin betiko ebazpen-proposamenek ez diote onuradun proposatuari inolako eskubiderik ematen Administrazioaren aurrean, 20/2023 Legearen 21.5 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hogeigarrena.– Prozedura ebaztea eta jakinarazpena.

1.– Behin betiko ebazpen-proposamena onartutakoan, Osalaneko zuzendari nagusiak prozedura ebatziko du.

2.– Ebazpenean, eskatzaile onuradunen zerrenda jasotzeaz gain, berariaz adieraziko dira laguntzaren xedea, zenbatekoa, ordaintzeko modua eta epeak, justifikatzeko modua eta dirulaguntzaren oinarri hauetan eskatutako gainerako baldintzak eta betekizunak; halaber adieraziko da gainerako eskabideak ezetsi direla. Deialdiaren oinarrietan jada jaso diren edukien erreproduzioei buruzko baldintzak eta betekizunak ebazpenean jaso gabe utzi ahal izango dira, eta egoitza elektronikora bidaltzen duen deialdiarekiko eta oinarriekiko esteka jarri ahalko da, 20/2023 Legearen 22.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

3.– Adjudikazio-ebazpenaren jakinarazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, ebazpen horren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu dakioke Osalaneko zuzendari nagusiar, hilabete epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, 39/2015 Legeak 112. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraikiz; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabete epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 8.3 eta 46.1 artikuluetan ezarritakoari jarraikiz. Berariazko ebazpenik ez badago, errekurtsoa jartzeko epea sei hilabete epea izango da, ustezko egintza gertatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera.

4.– Jakinarazpen elektronikoak Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira: (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>).

Hogeita batgarrena.– Esleitze-ebazpena aldatzea.

1.– Dirulaguntza emateko kontuan izandako baldintzak baimenik gabe aldatuz gero, laguntza emateko ebazpen hori aldatu edo bertan behera utz liteke. Erakunde onuradunak 20/2023 Lege Orokorraren IV. tituluan aurreikusitako arau-hauste eta zehapenen araubidea bete beharko du.

2.– Esleitze-ebazpenean zehaztutako epean eta moduan gauzatu beharko dira jarduketak. Alabaina, beste dirulaguntza batzuk ere eskuratzen badira edo dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintza teknikoak edo ekonomikoak aldarazteko moduko gorabeherarik gertatuz gero, betiere dirulaguntzaren bidez lortutako helburuei edo laguntza emateko funtsezkoak diren edo erabakigarriak izan diren alderdiei, erakunde onuradunaren zehaztapenari eta hirugarrenei eragiten ez badie, Osalaneko zuzendari nagusiak behar den aldatze-ebazpena emango du eta, hala badagokio, emandako dirulaguntzen zenbatekoak birdoitu. Erakunde edo pertsona onuradunek soberan jasotako zenbatekoak itzuli beharko dituzte, 20/2023 Legearen 40. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako prozeduraren arabera.

3.– Finantzatutako jardueraren balantze ekonomikoa –gastu eta diru-sarrera guztiak kontuan hartuta– aurrekontuan jasotakoa baino txikiagoa denean, sortutako gastu errealari egokituko zaio dirulaguntza, era proportzionalen.

Hogeita bigarrena.– Dirulaguntza justifikatzeko eta dirulaguntza ordaintzeko prozedura.

1.– Administrazioak dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, erakunde onuradunak erregistratuta egon behar du hirugarrenen erregistroan. Alta eman edo hirugarren interesdunaren datuak aldatzeko, Eusko Jaurlaritzak emandako hirugarrenagoentzako erregistro telematikora jo beharko da, honako helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritz/-/hirugarrenaren-datu-aldaketa/>

2.– Dirulaguntza horren zenbatekoa honela ordainduko da:

– Lehen ordainketa: % 50eko aurrerakina, aurretiazko ordainketa gisa, jarduerak egiteko, deialdi honen 19.3 artikuluan jasotako ebazpena emandakoan.

– Bigarren ordainketa: gainerako % 50a aurreikusitako jarduerak amaitu ondoren ordainduko da, 2026ko abenduaren 1a baino lehen eta hurrengo atalean adierazten diren frogagiriak aurkeztu ondoren.

3.– Eskatutako ekintza amaitu eta 15 eguneko epean, eta onartutako jardueraren kostua ordaindu aurretik, erakunde onuradunek honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

1.– Memoria ekonomikoa, egindako jarduerak eta horien kostua jasotzen dituen, I. eranskinaren arabera. Memoria honetan jasotzen diren langile-gastuek datu hauek bildu beharko dituzte: proiektuari emandako ordu-kopurua, langilearen izen-abizenak, guztizko kostua edo urteko edo aldiko kostua (soldata eta gizarte-segurantzaren kostua banakatuta), urteko ordu-kopurua edo, gastua zein langileri egozten zaion, haren aldia eta orduko kostua.

2.– Izandako gastuen fakturak edo egiaztagiriak.

3.– Deklarazio osagarria, administrazio publiko eskudunei edo horiei lotutako edo mendeko erakundeei jarduera bererako eskatutako laguntzak jasotzen dituen, bai onartutakoak bai ebazteke daudenak, bai jasotako zenbatekoa edo jasotzeke dutena.

4.– Jardueraren onartutako aurrekontuan aurreikusitako gastuak justifikatzeko, fakturak eta froga-balio baliokidea duten gainerako agiriak aurkeztu beharko dira, merkataritzako trafiko juridikoan balioa dutenak edo eraginkortasun administratiboa dutenak, aurrekontuan jasotako gastua benetan egin dela egiaztatuz. Fakturak zalantzarik gabe lotuta egongo dira diruz lagundutako jarduerekin, eta horietan bereizita eta banakatuta agertu beharko dira finantza daitezkeen kontzeptuak. Fakturekin batera, horiek ordaindu direla egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira. Ordainketen egiaztagiria fakturetarako ezarritakoez bestelako epeetan aurkeztu daitezke, Osalani eskabidea egin ondoren.

5.– Fakturetako edo agirietako gastuaren datak ezingo dira izan 2026ko azaroaren 30a baino geroagoak.

6.– Ez da ordainketarik egingo onuraduna egunean ez badago zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez, edo zorduna bada itzulketa bidezkoa dela adierazteko ebazpen bidez.

7.– Diruz lagundutako ekintza bakoitzari dagozkion adierazleen ebaluazioa, onuradunak egingo dira, ekintza horietan lortutako emaitzak objektiboki eta kuantifikatzeko moduan neurtu ahal izateko, bai eduki teknikoari dagokionez, bai eraginkortasunari, efizientziari eta ekonomiari dagokienez.

Adierazleen ebaluazioa prozesu sistematiko gisa ulertu behar da, diruz lagundutako proiektuaren jarduna aztertu eta neurtzen duena, neurtzeko metodoak, datu-bilketa, emaitzen analisia eta, hala badagokio, ekintza zuzentzaileen proposamena erabiliz, hurrengo deialdiei begira, aplikatzeko bada.

4.– Dokumentazioa jaso ondoren, Osalaneko langileek txosten tekniko bat egingo dute, enpresak eraman dituen jarduerak Osalaneko Balorazio Batzordeak baloratutakoekin bat datozen adierazteko. Txosten hori egin ondoren, Administrazio Sailak, fakturak eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak egiaztatu ondoren, ordainketa egingo du jakinarazpen bat eginez, azkenean onartutako zenbatekoa adierazita.

Hogeita hirugarrena.– Diruz lagundutako eta kontrolatu beharreko jardueren segimendua.

1.– Osalan Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko langileek aldi behingo jarraipena egingo dute, ebazpen honetan ezarritakoa betetzen dela bermatzeko, bai eta egiten ari diren eta egin diren ekintzak egiaztatzeke ere. Alde horretatik, erakunde onuradunek Osalan Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak edo Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatutako informazioa eman beharko dute.

2.– Oro har, dirulaguntza jasotzen duten erakundeek gidaliburu, triptiko eta diruz lagundutako ekintzen garapenean argitaratuko den beste edozein materialen kopia bana emango diote Osalani, argitaratu aurretik, hogeita zazpigarren oinarrian aurreikusitako erakunde onuradunen betebeharren barruan.

Hogeita laugarrena.– Esleitze-ebazpena baliorik eza.

Ekainaren 25eko TES/864/2023 Aginduaren 20. artikulua arabera, laguntza emateko ebazpena deuseztatu eta baliogabetzeko arrazoiak 20/2023 Legearen 35. artikuluan ezarritakoak izango dira.

Hogeita bosgarrena.– Borondatezko ukoa eta laguntza itzultzea.

1.– Emandako dirulaguntzari borondatez egiten bazaio uko behin betiko emakida-ebazpena argitaratu ondoren, galdu egingo da dirulaguntza kobratzeko eskubidea, eta hala badagokio, ordura

arte jasotako zenbatekoak itzuliko dira, dagokion atzerapen-interes eta guzti, TES/864/2023 Aginduaren 21.1 artikulua arabera.

2.– Jasotako aurrerakina borondatez itzuli nahi bada, hau da, onuradunak berak erabakita, dirulaguntza eman duen organoaren aurretiazko errekerimendurik gabe, onuradunak modu sinesgarrian igorri beharko dio banku-transferentziaren egiaztagiria aurrerakina igorri duen organoari, TES/864/2023 Aginduaren 21.2 artikulua arabera.

Hogeita seigarrena.– Ez-betetzeak, erantzukizunak eta dirua itzultzea.

1.– Dirulaguntzaren entitate onuraduna 20/2023 Legearen 36. artikuluan ezarritako kasuetako batean badago, edo ebazpen honetan, gainerako arau aplikagarrietan edo emakida-ebazpenean ezarritako baldintzaren bat betetzen ez badu, Osalaneko zuzendari nagusiak ebazpen bat emango du. Horren bitartez, ordaintzeko dauden kopuruak jasotzeko eskubidea galdu duela adieraziko du, eta, hala badagokio, jasotako dirulaguntza eta aplika daitezkeen berandutze-interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli behar dizkiola, dagozkion gainerako ekintzak aparte utzi gabe, aipatutako legearen 40. artikuluan ezarritakoaren arabera. 20/2023 Legearen 38. artikulua ezartzen duenez, itzuli behar diren zenbatekoak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira, eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginean aurreikusitakoa aplikatuko da horiek kobratzeko.

Esleitze-ebazpenean ezarritako baldintzak partzialki betetzen ez badira, emandako laguntzaren zenbatekoa azkenean justifikatutako jardueretara egokituko da, hamaikagarren oinarriaren arabera.

Arlo honetako arau-hausteei buruz abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 46. eta 47. artikuluetan ezartzen diren erantzukizunak eta zehapen-araubidea bete beharko dituzte dirulaguntza hauen onuradunek.

2.– Dirulaguntzen gainean zehapenak jartzeko administrazio-espeditentea izapidetu beharko da. Izapide horren bidez, entzunaldia emango zaio interesdunari, dagokion erabakia ezarri baino lehen, hori guztia 39/2015 Legearen IV. tituluan, 40/2015 Legearen atariko tituluko III. kapituluan eta 20/2023 Legearen IV. tituluan ezarritakoaren arabera.

Hogeita zazpigarrena.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

1.– Argitalpen, liburuxka, agiri eta euskarri informatiko guztietan, berariaz aipatu beharko da Osalanek diruz lagundu izana, hauetan xedatutakoa betez: abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuan jasotako Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Nortasunaren Araudia (dekretu horren bidez arautzen da Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Nortasunaren Eskuliburua) eta Lehendakartzako idazkari nagusiaren 2013ko uztailaren 2ko Ebazpena, zeinen bidez sartzan baitira azken aldaketak Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Nortasunaren Eskuliburuan (2023ko uztailaren 31ko EHAA, 145. zenbakia).

2.– Sortutako eduki horietan guztietan hizkera eta irudi inklusibo eta ez-sexistak erabili beharko dira, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 19.4 eta 23.3.c) artikuluetan xedatutakoa betez.

3.– Gainera, eduki horietan, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideei buruz ezarritako aurreikuspenak aplikatuko dira. Irizpide horiek euskal sektore publikoko entitateen dirulaguntza-jardueraren ondorioz onuradun diren entitateei aplikatuko zaizkie.

4.– Erakunde onuradunek egindako jarduerak ikuskatzeko aukera emango diote Osalani.

5.– Aldez aurretik jakinarazi beharko zaio Osalani diruz lagundutako jardueretan aurreikusitako baldintzetan aldaketarik gertatzen den.

6.– Erakunde onuradunek betebeharrak hauek ere konplitu beharko dituzte:

– Dirulaguntza eman izanaren oinarrian dagoena taxutzea (helburua bete, proiektua egikaritu, jarduera burutu edo jarrera hartu).

– Ezarritako epeetan, eskakizunak eta baldintzak betetzen direla egiaztatzea, bai eta jarduera egin dela eta dirulaguntza ematea edo baliatzea eragin zuen helburua bete dela egiaztatzea ere.

– Dirulaguntza ematen duen erakundeak egin beharreko egiaztapen-ekintzak eta eskumena duten kontrol- eta jarraipen-organoek, hala nola Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, finantza-arloko kontrola egin dezaketen beste ekintza oro ere betetzea. Horretarako, ekintza horiek gauzatzean eskatzen zaien informazio guztia eman beharko dute.

– Laguntza eman duen organoari jakinaraztea helburu bererako beste dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu direla estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuetatik, eta horiei eman zaien aplikazioa. Jakin bezain laster jakinarazi behar zaio, betiere jasotako funtsen erabilera justifikatu baino lehen.

– Jasotako funtsen aplikazioa justifikatzen duten agiri guztiak gordetzea eta jarraipen-organoari ematea, organo horrek hala eskatzen duenean, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen- eta kontrol-jardueren xede izan daitezkeen heinean.

– Kontabilitate-liburuak, izapidetutako erregistroak eta gainerako dokumentuak behar bezala ikuskatuta edukitzea, erakunde onuradunari kasu bakoitzean aplika dakiokkeen merkataritzako eta sektoreko legerian eskatzen den bezala, baita deialdi-agindu honetan eskatzen diren erregistro espezifikoak eta kontabilitateko egoera-orriak ere, egiaztatzeko eta kontrolatzeko ahalmenak behar bezala erabili ahal izateko.

– Aurkeztutako proiektuan ezarritako adierazleen multzoaren edukiaren berri Osalani ematea, ekintzen finantzaketak laneko segurtasun- eta osasun-baldintzen hobekuntzan eraginik izan ote duen jakiteko. Adierazle-sortak aukera emango du, gutxienez, diruz lagundutako ekintza jaso duten erabiltzaileen kopurua, ekintzaren emaitzarekiko gogobetetze-maila edo ekintza horrek aurreko beste ekintza batzuekiko duen originaltasuna jakiteko.

– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 27. artikuluan jasotako zabalkunde-neurriak hartzea.

– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan aurreikusitako kondizioetan jasotako funtsak itzultzea.

Hogeita zortzigarrena.– Datu pertsonalen tratamendua.

Datu pertsonalak izen hau duen tratamendu-jardueran tratatu eta sartuko dira: Laguntzak, dirulaguntzak, sariak eta bekak.

– Arduraduna: Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Erakundea

Helburua: Bekak, sariak, laguntzak eta dirulaguntzak ematea horiek eskatzen dituzten pertsonen edo erakundeen. Lanen zabalkundea egitea, hainbat euskarritan argitaratuta. Deialdiak ezagutaraztea.

Legitimazioa:

– Interesdunaren adostasuna.

– Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoak egikaritzean egin behar den eginkizun bat betetzeko.

– 20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa.

– 7/1993 Legea, abenduaren 21ekoa, Osalan Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea sortzekoa.

Hartzaileak:

– Ogasun publikoa.

– Interesdun legitimoak.

– Euskal Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

– Kontuen Epaitegia edo autonomia-erkidegoko baliokidea.

– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria.

Eskubideak: eskubidea duzu datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta xehea duzu gure web-orrian:

<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/162100-capa2-eu.shtml>

Arauak:

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra:

(<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/fr/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=fr>)

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa:

(https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf)

Hogeita bederatzigarrena.– Arau aplikagarriak.

Arau hauetan ezarritakoa bete beharko dute dirulaguntzek: TES/835/2025 Agindua, uztailaren 16koa, zeinaren bidez lurraldean banatzen baitira 2025eko ekitaldirako, eskumenak bereganatuta dituzten autonomia-erkidegoek kudeatu ditzaten, lurralde-mailako lan-arriskuak prebenitzeko ekin-tzak finantzatzeko kredituak, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera; TES/864/2023 Agindua, uztailaren 21ekoa, lan-arriskuen prebentzioaren arloan jarduerak egiteko dirulaguntzak norgehiagoka-araubidean emateko oinarri arautzaileak onartzen dituena, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera; eta 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; eta 20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa.

II. ERANSKINA

PROIEKTUAREN MEMORIA TEKNIKO A EGITEKO EREDUA

PROIEKTUAREN MEMORIA TEKNIKO A	
Proiektuaren izena:	
Jardueraren tipologia (zehaztu proiektuaren eta III. eranskinetako gaitzenbakiaren arteko erlazioa).	
Jardueraren erakunde arduraduna.	
Jardueraren arduraduna:	Sexua:
Proiektuaren laburpena (proiektuaren helburuak eta metodologia) (gehienez, 250 hitz):	
Genero-ikuspegia txertatzea (nola aurreikusten den jardueretan genero-ikuspegia eta emakumeengan eta gizonengan izan lezakeen eragina; LAPeko genero-arrakalak hautematea eta murrizten laguntzea; berdintasuna sustatzea LSON) (gehienez orrialde bat).	
Arrazoibidea:	
Helburuak:	
Metodologia (gehienez, 3 orri).	
Lan-plana (garapenaldiak, atazen banaketa eta kronograma. Jarduera non egingo den ere adierazi behar da). (gehienez 2 orrialde).	
Lantaldeak gaiari buruz duen esperientzia, genero-ikuspegitik adierazita (gehienez, orri 1).	
Emitzen erabilgarritasun praktikoa, osasunari dagokionez.	
Ekintza bakoitzerako proposatutako ebaluazio-adierazleak jasotzea.	
Proiektua burutzeko eskuragarri diren baliabideak.	

2025eko abenduaren 30a, asteartea

III. ERANSKINA

PROIEKTUAREN MEMORIA EKONOMIKOA EGITEKO EREDUA

PROIEKTUAREN MEMORIA EKONOMIKOA							
Justifikatutako aldia: urtea/hilabetea/eguna – urtea/hilabetea/eguna							
LANGILE-GASTUAK							
Entitatearen beraren langile-gastuak:							
	A	B	C	D	E	F	G
Erakundearen beraren langileen izen-abizenak	Soldata-kostua (urtekoa nahiz proiektu-denborakoa)	Gizarte Segurantzaren kostua (urtekoa nahiz proiektu-denborakoa)	Kostua, guztira: A + B	Langileei egotzitako guztizko ordu-kopurua (urtekoa nahiz proiektu-denborakoa)	Langileen orduko kostua: C / D	Erakundearen beraren langileek proiektuan emandako orduak	Egotzitako kostua, guztira
Teknikari laguntzaileen gastuak:							
	A	B	C	D	E	F	G
Langileen izen-abizenak	Soldata-kostua (urtekoa nahiz proiektu-denborakoa)	Gizarte Segurantzaren kostua (urtekoa nahiz proiektu-denborakoa)	Kostua, guztira: A + B	Langileei egotzitako guztizko ordu-kopurua (urtekoa nahiz proiektu-denborakoa)	Langileen orduko kostua: C / D	Langileek proiektuan emandako orduak	Egotzitako kostua, guztira: E x F
Langile-gastuen guztizko partziala							
GAUZATZE-GASTUAK							
Aparatuak eta tresnak:							
Faktura-zenbakia	Kontzeptua		Fakturaren zenbatekoa		Proiektuari egotzitako kopurua (euro)		
Azpikontzazioak:							
Faktura-zenbakia	Kontzeptua		Fakturaren zenbatekoa		Proiektuari egotzitako kopurua (euro)		
Material suntsikorra eta bibliografikoa:							
Faktura-zenbakia	Kontzeptua		Fakturaren zenbatekoa		Proiektuari egotzitako kopurua (euro)		
Bidaiak, lekualdaketak eta mantenua:							
Faktura-zenbakia	Kontzeptua		Fakturaren zenbatekoa		Proiektuari egotzitako kopurua (euro)		
Gauzatze-gastuak guztira							
Gastuak guztira (langile-gastuak + gauzatze-gastuak)							

IV. ERANSKINA

HAMAIKAGARREN OINARRIKO 3. ZENBAKIAN ZERRENDATUTAKO JARDUERA
LAGUNGARRIEN ZERRENDA ORIENTAGARRIA

1.– Informazio-ekintzak: lan-arriskuen prebentzio-ekintzaren printzipioak edo printzipio horiek aplikatzeko arau zehatzak langileen edo enpresaburuen artean zabaltzea helburu dutenak izango dira.

1.– Teknologia berrietan oinarritutako dibulgazio-jarduerak: laguntza-webguneak, app interaktiboak. Leku interaktiboak planteatzen dira, hau da, lan-arriskuen prebentzioari buruzko galderak erantzun eta albiste eta gomendioak zabaltzen dituztenak. Ahal dela, langile autonomoei, enpresa txikiei eta osasuna prebenitzeko zailtasun handienak dituzten kolektiboek zuzenduta. Gai zehatzekoak izan litezke.

2.– Komunikabideetan aldizkako argitalpen finakoak agertzeko kanpainak, «atal» gisa. Akordioak mota guztietako bitartekoekin: idatziak, ikus-entzunezkoak, informatikoak.

3.– Streaming kanpaina espezifikoak sortzea zuzenekoan edo bideoen bidez; LAParen inguruko kanal tematiko bat sortzea. Gai-arlo bereziak.

2.– Laguntza teknikoko ekintzak: prebentzio-jardueren aplikazio praktikoaren eta materialaren ondoriozko arazoak aztertze eta ebazteko direnak izango dira. Enpresa txikien gaineko ikuspegi berezia duten proiektuak baloratuko dira.

4.– Lan-arriskuen prebentzioaren kudeaketa enpresaren kudeaketan integratzen laguntzeko proiektuak. Biztanleria jakin batean aplikatzeko proiektu zehatzak edo proiektu orokorragoak.

5.– Arriskuak ebaluatzeko eta prebentzio-plangintza ezartzeko metodoak hobetzen laguntzeko proiektuak. Metodologia, ezarpena eta jarraipena enpresan.

6.– Enpresetan osasunaren zaintza hobetzeko proiektuak: plangintza, prebentzio-jardueretako txertaketa eta prebentzio-diziplinen kohesioa, osasunaren zaintza barne.

7.– Enpresan lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen gaineko informazioa eta ikerketa hobetzeko proiektuak.

8.– Osasunean eragin zehatzak murrizteko proiektuak. Gai lehenetsiak, honako hauek prebenitzeko:

– Muskulu eta hezurretako kalteak.

– Lan egiteko modu berriek eragindako kalteak: telelana, 4.0 enpresa, robotika kolaboratiboa.

– Arrisku psikosozialeko faktoreekiko esposizioaren ondoriozko kalteak, genero-ikuspegia kontuan hartuta.

– in itinere istripuak.

– Lan-istripu «ez-traumatikoak».

– Sexu-jazarpena eta sexu-arrazoiengatiko jazarpena.

9.– «Enpresa osasungarrietan» aurrera egiteko eta osasuna sustatzeko jarduerak.

3.– Prestakuntza-ekintzak: ekoizpen-jardueraren sektoreetan eta azpisektoreetan eman daitezkeen programen metodoak eta edukiak diseinatzean datza, batez ere enpresa txikiek osatutako egitura duten programetan.

10.– «Eskolako» prestakuntzara bideratutako proiektuak: curriculum-proposamenak, lan-arriskuen prebentzioa prestakuntza arautuan sartzeko jarduerak.

11.– Prestakuntza interaktiborako berariazko gaiak edo publiko espezifikoak zuzendutakoak prestatzeko plataformak sortzea. Enpresa txikiari zuzendutako programak baloratuko dira.

12.– Prestakuntza-kanpaina espezifikoak, jardunaldiak edo mintegiak antolatuz.

4.– Lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzea sustatzeko ekintzak: langileek eta enpresaburuek lan-arriskuen prebentzioari buruzko legezko, arauzko eta hitzarmenezko xedapenak ezagutu eta aplikatzea sustatzen dutenak izango dira, bereziki produkzio-jardueraren sektore- eta lurralde-eremuetan garatutako mekanismoen eta tresnen bidez.

13.– Dibulgazio-materiala argitaratzeko proiektuak, enpresek eta langileek lan-arriskuen prebentzioari dagokionez dituzten betebeharrak eta eskubideak erakusteko. Bereziki enpresa txikiei eta prebentzioaren kudeaketan zailtasun handienak dituzten kolektiboak zuzendutako kanpainak. Gai lehenetsiak:

– Informazio-trukea eta beharra: arriskuak identifikatzea eta ebaluatzea, osasunean dituen ondorioak.

– Lanpostuak eta jarduera bera bereziki langile sentikorrei egokitzea.

– Lanpostuak eta jarduera bera haurdun zein eradoskitzen ari diren emakumeei egokitzea.

– Lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen ikerketa eragingarria lortzeko jardun-moduak.

– Langileek enpresaren prebentzioan duten parte-hartzea hobetzeko metodoak eta sistemak, arreta berezia jarriz prebentzio-ordezkarien eta segurtasun- eta osasun-batzordearen parte-hartzeari eta langileekiko harremanari.

– Prebentzio-kudeaketan genero-ikuspegia txertatzea.

V. ERANSKINA

ERAKUNDE ONURADUN IZATEKO DEBEKURIK EZ DUELA ADIERAZTEKO EREDUA

XXXXXXXXXX, ordezkatzan dudan XXXX erakundearen izenean eta nire erantzukizunpean

ADIERAZTEN DUT:

Betetzen ditudala Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan laguntzaren onuradun izateko ezarritako baldintzak eta aipatzen diren gainerako legezko debekuak, 2025. urtean lan-arriskuen prebentzioaren eremuan jarduerak egiteko dirulaguntzen programari buruzkoak. xxxx/xx/xx(e)ko EHAA, XXX. zk. (informazio hori deialdi bakoitzerako ezarriko da, oro har):

1.– Ez egotea laguntza edo dirulaguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren epai irmo batez kondenatuta, delitu hauetakoren bat egiteagatik: prebentzioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, influentzia-trafikoak, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

2.– Borondatez konkurtsoa deklaratzeko eskaerarik egin ez izana; edozein prozeduratan kaudimengabe deklaratu ez izatea; konkurtsoan deklaratu ez egotea (salbu eta konkurtso horretan hitzarmen batek efikazia lortu badu); esku-hartze judizialaren mende ez egotea eta Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera desgaituta ez egotea, hartzekodunen konkurtsoa kalifikatzeko epaian finkatutako desgaitze-aldia oraindik amaitu gabe egonik.

3.– Ez izatea administrazioarekin egindako kontratu baten suntsiarazpen irmoaren eragile deklaratu.

4.– Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak ez egotea lege hauek jasotako bateraezintasun-araubidearen kasuetako batean: Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legea eta Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko Eusko Legebiltzarraren 1/2014 Legea. Edo ez direla Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapenezko karguak, lege horretan edo gai horiek arautzen dituen autonomia-erkidegoko araudian ezarritako baldintzetan.

5.– Ez izatea egoitza fiskala paradisu fiskaltzat hartutako lurralde edo herrialde batean.

6.– Ordainduta edukitzea dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak, 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 4 artikuluan agintzen den eran (Agindua, 2023ko otsailaren 13koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa).

7.– Ez izatea dirulaguntzak jasotzea galarazten dion zehapen-ebazpen irmorik, betiere bat etorri legezko honekin edo halakorik ezartzen duten beste batzuekin. Zehazki, sexuagatiko diskriminazioan erortzeagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik zehapen administratibo edo penala jaso izana, dagokion zehapenean ezarritako aldia gainditu gabe.

8.– Estatuko araudiaren arabera indarrean dagoen berdintasun-plana izateko betebeharra ez betetzea, ezta, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko Estatuko legeriak ezarritako baldintzetan, sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta horri aurre egiteko neurriak ezartzeko betebeharra ere ez betetzea.

9.– Ordezkatutako elkarteak ez egotea Elkartzeko Eskubidea arautzeari buruzko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluko 5. eta 6. paragrafoetan aurreikusitako debeku-kausen eraginpean.

10.– Ez-zilegitasun penalaren arrazoizko zantzuak aurkitzeagatik, ordezkaturako entitatea inskribatzeko administrazio-prozedura etenda ez egotea, Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 30.4 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, harik eta ebazpen judizial irmoa eman arte, zeinaren bidez inskripzioa egin baitaiteke dagokion erregistroan.

11.– Ez egin, bultzatu edo sustatu izana LGBTIfobia, bihurketa-terapiak sustatzea edo egitea barne (otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikulua).

12.– Ez egotea zigortuta hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautzeko eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitako arau-hauste larri edo oso larri batengatik, administrazio-bidean emandako ebazpen irmo baten bidez, zuzenketa-neurri egokiak hartu eta zehapena ordaindu arte.

13.– Desgaitasuna duten pertsonentzat lege ezarritako erreserba-kuota ez betetzea, eta hori betetzeko beste neurri batzuk hartu direla egiaztatu ez izana.

14.– Fundazioen kasuan, beren estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legean xedatutakora egokitu izana, eta egokitzapena Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan gordeta izatea (Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 1. xedapen iragankorra).

15.– Enpresaren deslokalizazio-deklaraziorik ez izatea, Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 51. artikuluan ezarritakoaren arabera.

16.– Betetzen ditudala nire zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeari buruzko 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 6. artikuluan ezarritakoaren arabera.

17.– Eskatutako laguntza jarduera bererako aitortu edo ordaindutako beste laguntza batzuekin bateragarria izanik, gainfinantzaketarik ez izatea. Nolanahi ere, etorkizunean helburu bererako jasotzen diren laguntzen berri eman beharko da, laguntza likidatu arteko aldirian.

18.– Aurreko hiru ekitaldietan jasotako de minimis laguntzek guztira ez gainditzea 300.000 euroko muga, laguntza hau eman aurreko hiru urteetan, Europar Batasunaren Funtzionamendu Itunaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzko Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamenduan ezarritakoaren arabera, ez eta de minimis mekanismo honetarako gainerako araudian ezarritako beste modu eta muga batzuk ere.

19.– Baldintzen betearazpenaren eta emandako datuen zorroztasunaren erantzukizunpeko adierazpenak:

– Eskakizunak betetzen ditut, indarrean dagoen araudian ezarritakoak.

– Eskabide honetako datu guztiak egiazkoak eta osoak direla, baita aurkezten dituen dokumentu guztiak ere, eta bere gain hartzen duela dagokion erantzukizuna (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den datu edo informazioaren bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, edo deklaratzeko dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa, edo komunikazioa, ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen jarraitzea edo jardueran aritzen jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).